



ELGOIBARKO  
UDALA

# EMAKUME ETA GIOZONEN BERDINTASUNERAKO III PLANAREN EBALUAKETA ETA DIAGNOSTIKOA

2019



MURGIBE



ELGOIBAR  
UDALA  
AYUNTAMIENTO



EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN ELISKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

## aurkibidea

1.	Sarrera...	..	..	..	..	..	..	3
2.	Lan prozesua	..	..	..	..	..	..	6
3.	Elgoibar zifretan	..	..	..	..	..	..	9
4.	Ebaluaketaren emaitzak..	..	..	..	..	..	..	22
5.	Prozesu parte-hartzailearen emaitzak	..	..	..	..	..	..	32
6.	Herri galdeketaren emaitzak	..	..	..	..	..	..	36
7.	Beharren mapa	..	..	..	..	..	..	48


# 1. Sarrera

---

Elgoibarko Udalak pausu egonkorak ematen ari da berdintasunean. Berdintasuna udal agendan dago eta berdintasunaren aldeko sarea gero eta handiagoa da.

2009an, genero-berdintasunaren arloko jardunak sendotu, egituratu eta programatzeko, Euskal Administrazioak hartutako konpromisoen ildotik, Udalak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana 2008-2011 onetsi zuen Debegesaren laguntzarekin.

Azken urteetan aktiboki lanean aritu izan da beste bi Berdintasun Planen indarpean, lau ardatz jorratuz, besteak beste, Berdintasunerako Gobernantza; Jabekuntza eta balio aldaketa; Gizarte antolakuntza erantzunkidea eta Emakumeen kontrako Indarkeria.



Momentu honetan III Planaren ebaluaketa eta diagnostia eguneratu dira hurrengo helburuak jarraituz:

- ⊙ Emakumeen eta Gizonen egoerari buruzko datuak ezagutzea, udalerrian benetako berdintasuna lortzeko indarguneak eta hobetzeko esparruak identifikatuz.
- ⊙ IV. Planerako proposamenak bildu.
- ⊙ Prozesu parte-hartzailea bultzatzea Emakumeen Kontseilua eta beste eragileak inplikatur.

## Berdintasunean egindako ekintza nagusiak

### Emakumeen jabekuntzan eta Balio Aldaketan

- Kulturartekotasuna sustatzeko ekintza ezberdinak burutu dira: 2016an Loreak kulturartekotasunaren aldeko emakumeen elkarteak sortzen da. Emakumeen Kontseiluan parte hartu dute, kulturartekotasunaren astean sukaldaritza tailerra antolatu da. Lorea Elkarteak emakumeentzako Moda, jabekuntza feministarako tresna tailerra martxan jarri du.
- Jabekuntza programa bat dago martxan eta hilero ekintzaren bat dago programatua. irizpide batzuk adostu dira. Helburua ahalik abaniko zabalarengana iristea da; sareak sortzea, emakumeak ahalduntzea eta hauek beraien komunitatean eragitea, adin tarte ezberdinetako herritarrak harremantzea...
- Gizarte-bazterketa arriskuan dauden Emakume langabetuentzako formakuntza antolatu da: Merkataritzako Laguntzaile. Sartu SARTU-ZABALTZENekin erlkarlanean.
- Korrikeda emakume korrikalarien taldea bultzatu zen eta gaur egun mantentzen da beraiek kudeatuta.
- Martxoak 8an programa interesgarria antolatzen da eta Martxa morea egiten da
- Diru laguntzak bi motatakoak dira: emakumeen elkarteei zuzendutako diru-laguntza 3.000 €-koak eta elkarteei orokorrean berdintasuna sustatzeko , 5.000 €-koa ere.
- Eskola Kirola proiektua. KALAMUA guraso elkarteak sustatutako proiektua neske parte-hartzea handitzeko. Haur eta nerabeen artean kirol praktika aztertu da genero ikuspegitik eta nesken kirol praktika sustatzeko ekintzak ipini dira martxan
- Gurutze Gorria, Sartu eta Caritasekin Gizarte-bazterketa arriskuan dauden emakume etorkinekin jabekuntzaren proiektua lantzen da.

- Jaietan genero ikuspegia txertatzeko lanketa egin da: Haizea emakume taldearekin Uluka batukada feministarekin eta udalak antolatzen dituzten gune prebentiboak koordinatu eta elkarlanean programatu dira; berdintasun arloa eta emakume kontseiluarekin elkarlanean, eraso sexisten aurkako protokoloa aurkeztu da. Jaiak baino lehen, autodefentsa tailerrak eta emakumeen ahalduntzerako tailerrak eskaini dira. Prebentzio kanpainak egin dira. Tabernariekin sentsibilizazioa landu da. Tabernariei eraso baten aurrean jarraitu beharreko protokoloaren laburpen fitxa bat helarazi zaie. Beldur barik gunea mantendu da.

### Kontziliazioan eta erantzukidetasunean

- Kontziliazio eta erantzukidetasunaren proiektua landu da. “Udalerriko kontziliazio egoerari buruzko diagnostiko sektoriala eta ekintza plana” aurrera eraman da. Bestalde Kontziliazio erantzunkidearen ituna sinatu da

### Indarkeria matxistaren aurrean

- Eraso matxisten aurreko erantzun protokoloa landua da. Jaietan kanpaina ezberdinak egin dira
- Indarkeria matxistaren inguruko prebentzio tailerrak aurrera eraman dira ikastetxeetan.
- “Erailketa matxistak! ASKI DA! / ;Asesinatos machistas! ;BASTA YA!” markagailua jarri da herrian estatu mailan bikote edo bikote ohiagatik emakume erahiliak bistartzeko.

## 2. Lan prozesua


Elgoibarko III Berdintasun Planaren ebaluaketa eta daignosia, udalarloetako teknikari eta politikari, udaleko elkarte eta eragileen parte-hartzearekin egin da. Berdintasun Arloa eta EmakumeKontseilua izan dira proiektuako koordinatututuenak MURGIBE aholkularitzarekin batera.

Parte-hartzaleen kopurua hurrengoan izan da: **122 emakume eta 39 gizon.**

### Parte-hartzea

Parte-hartzea	
<b>Elkarrizketak</b>	15 pertsona ( 14 emakume eta gizon 1) <ul style="list-style-type: none"><li>- Jubilatutak</li><li>- Haizea</li><li>- Narrutsik</li><li>- Jai Batzordea</li><li>- Sartu-Zabaltzen</li><li>- Nuala</li><li>- Caritas</li><li>- Ludoteka</li><li>- 5 enpresa jarri izenak (Goratu, AVS, Ojmar, Novak eta Deka)</li></ul>
<b>Online inkesta (eragileak, herritarrak...)</b>	110 pertsona: 82 emakume eta 28 gizon
Parte hartze mahaiak	
<b>Mahai teknikoa</b>	15 pertsona (10 emakume eta 5 gizon)
<b>Mahai politikoa</b>	12 pertsona (7 emakume eta 5 gizon)
<b>Emakumeen Kontseilua</b>	8 emakume

Teknika kualitatibo eta kuantitaitiboak erabili dira eta emandako pausuak hurrengoak izan dira:



**EBALUAKETA:** Berdintasun arloko memoriak berrikusi dira eta udalarloetako ordezkarien, politikarien eta emakumeen kontseiluaren ekarpenak jaso dira.

**ELKARRIZKETAK.** Herri eragileei zuzendu dira berdintasun ikuspegia lantzen duten, beraien esparruetan berdintasunarekiko beharrak identifikatzeko eta baita ere hurrengo planari dagokionez hobetzeko dagoena jasotzeko.

**HERRI GALDEKETA.** On-line galdetegia diseinatu da eta medio ezberdinetan zabaldu eta jendarteratu da, udaleko web orria eta sare sozialak erabiliz. Guztira 110 pertsonak erantzun dute, 82 emakume eta 28 gizonak.

Inkestan berdintasun arloko ekintzak ezagutu eta parte-hartu duten galdetu da.

Bestalde lehentasunak eta porposamenak hurrengo zehar-lerroetan priorizatu dira:

Haur, guraso, elkarte eta herritar orori zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak egitea, gizartean dauden estereotipo eta aurre iritzi guztiak gaingaitzeko
Emakumeen enplegu-kalitatea eta lan-baldintza hobetzea
Ordaindu gabeko zaintza-lanak ikusgarriago egitea eta nabarmentzea
Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen arreta eta aurrezaintza hobetzea
Talde hauetako emakumeen bizitza-kalitatea hobetzea: gizarte-bazterkeria arriskuan daudenena, adinekoena, etorkinena, desgaituena eta abarrena
Enpresek eta herri-zerbitzuek malgutasun handiagoz jokatzeko, bizimodu pertsonala, lana eta familia uztartzeko
Emakumeek parte-hartze handiagoa izatea, erabakiak hartzeko guneetan: batzar, zuzendaritza eta batzordeetan
Mendekoak (adin-txikikoak, nagusiak, desgaituak) artatzeko bitartekoak eta programak hobetzea.

**PARTE-HARTZE MAHAIK:** hiru mahai ezberdin antolatu dira, batetik Emakumeen Kontseiluarekin, besteik udal langileekin eta azkenik udal politikariekin. III Planaren ardatzak hartu dira irizpidetzat, aurreikusita zeuden ekintzak errepasatu dira eta taldeka ahuleziak eta hobetzeko arloak baloratu dira.

**BIGARREN MAILAKO ITURRIAK.** Dokumentazio ezberdina aztertu da. Besteak beste:


- EUSTAT – Euskadiko Estatistika Institutua
- Opendata– Eusko Jaurlaritza
- Udalmap
- Lanbide
- INE- Estatutiko Estatistika Institutua
- Berdintasun Arloak egindako ebaluaketak eta aktak.



### 3.Elgoibar zifretan

Elgoibar Deba Beherea eskualdeko erdigunean kokatuta dagoen udalerriak, 11.582 biztanle ditu. Huetatik 5.852 (%50,5) emakumeak dira, eta 5.730 (%49,5) gizonak. Gauzak horrela, Gipuzkoako lurralde historikoko 17. udalerririk handiena da. (Estatistika Erakunde Nazionala: Erroldaren berrikuspena 2018)

Elgoibarko egitura demografikoa jarraian dagoen biztanleria piramidean dago aurkeztuta.



#### BIZTANLERIA PIRAMIDEA

Iturria: Estatistika Erakunde Nazionalaren Errolda Jarraitua (2018ko urtarrilaren 1eko datuak)

Populazio datuen arabera, aurkezten den piramidea atzeranzkoa da. Hau da, goiko aldean oinarrian baino zabalagoa da jaiotza tasa jaitsieragatik eta bere populazioaren zahartze jarraituagatik.

Piramide hau gizarte industrializatuetan oso ohikoa da. Huetan bizi itxaropena oso altua da eta zaharkitzerantz joera handia dago honen hazkunde naturala murriztua den heinean.

Datu hauek oinarrian hazkunde txiki bat islatzen dute (0-10 urte arteko biztanleria tarte), azken urteetan jaiotza gehiago egon direnaren adierazle. Horretaz gain, emakume zein

gizonen kasuan, 40-60 urte arteko populazioan kontzentrazio handiagoa dagoela ikus daiteke.

**1go taula. Datu soziodemografikoak**

	Urtea	Udalerrria	Eskualdea	Gipuzkoa	EAE
Haurtzaroaren indizea: 0 eta 14 urte bitarteko populazioa (%)	2018	15,82	14,91	14,67	14,03
Zahartzearen indizea. 65eko eta urte gehiagoko populazioa (%)	2018	22,16	23,13	21,93	22,01
Zahartze handiaren indizea. 75eko eta gehiagoko populazioa (%)	2018	11,69	11,83	10,70	10,92
Jaiotza tasa gordina (%)	2018	8,65	7,93	7,59	7,32
Kanpoko migrazio kitapena (%)	2018	7,35	8,20	6,93	6,70
Hazkunde tasa begetatiboa (%)	2018	-1,04	-2,69	-2,17	-2,57
Atzerriko populazioa (%)	2018	8,25	7,80	7,11	6,89

Iturria: OPENDATA-k eskainitako datuetatik aurrera berezko lantzea


Aurreko taularen indizeek eskualdean, lurraldean eta komunitatean baino datu positiboak ikus daitezke jaiotza eta hazkunde begetatiboari dagokionez.

Atzerriko populazioak Elgoibarko populazio guztiaren %8,25a irudikatzen du (guztira 956: 452 emakume eta 504 gizon), EAEko (%6,89) eta Gipuzkoako (%7,11) ehuneko apur bat handiagoa.

Biztanleria hau sexuaren arabera desberdintzen bada, aldeak minimoak dira, gizonen kopurua handiagoa izanda (%7,0 emakumeen artean eta %7,2 gizonen artean).

2007ko datuek biltzen zutenaren arabera atzerriko populazioa %3,5ekoa zen, eta 2015an portzentaia %7,5era handitu zen. Beraz, ikus daiteke azkenengo urteetan populazio hau handitzen joan dela.


**1. GRAFIKOA: ATZERRITAR POPULAZIOA SEXUAREN ARABERA (%)**



Iturria: Estatistika Erakunde Nazionala: Erroldaren berrikuspena 2018

Atzerriko populazioa herrialde ezberdinetatik heltzen da Elgoibarrera. Atzerritar guztien %35a Afrikatik dator. 2013an gehiengoaren jatorriak Bolivia, Ekuador eta Dominikar Errepublika ziren, gaur egun Maroko eta Senegal nabarmentzen dira. Hurrengo grafikoan jatorri nagusiak bildu dira.

**2. GRAFIKOA: ATZERRIKO POPULAZIOA SEXU ETA JATORRIKO HERRIALDEAREN ARABERA- TALDE OROKORRAK**



Iturria: Estatistika Erakunde Nazionala: Erroldaren berrikuspena 2018

Gainera, ezberdintasun nabarmenak daude gizon eta emakumeen artean jatorriari dagokionez. Izan ere, Amerika eta Ozeaniatik emakumeak datoz gehien bat, eta gainontzekoetatik gizonak gehiago.

Aniztasun funtzionala dituen pertsonak populazioaren %6a suposatzen du, %47a emakumeak eta %53a gizonak direlarik. 10etik 6k ezintasun fisikoa daukate.

**2.Taula: Aniztasun Funtzionala sexuz eta motaz. 2019**

	Emakumeak	Gizonak
<b>Fiskoa</b>	219 (%60)	253(%62)
<b>Intelektuala</b>	79 (%22)	99 (%24)
<b>Sensoriala</b>	62 (%18)	55 (%13)
	360 (%47)	407 (%53)

Iturria: Elgoibarko Udala

### Egoera sozioekonomikoa eta enpresa-sarea

Populazioaren egoera sozioekonomikoa eta lan-merkatuaren egoera gaur egun garrantzi handiko kontuak dira, horregatik, atal bat honen inguruko informazioa batzeko zuzendu da.

Informazio hau, adierazle berdinak badaude, Elgoibarko erreferentziazko bi udalerrirekin alderatuko da, biztanle kopuruari eta hurbiltasunari dagokionez duten antzekotasunagatik, hain zuzen ere Eibar eta Solaluzerekin. Lurralde historikoko eta EAEko informazioarekin ere alderatuko da.

Lehenik eta behin, Lanbiden argitaratutako langabezia indize berriena bildu da. Iturri horren arabera, Elgoibarko biztanleriaren langabezia-tasa% 9,1ekoa da.

**3.Taula: LANGABEZI INDIZEA (2013ko abendua – 2019 urria)**

2016	GUZTIRA	Emakumeak	Gizonak	Genero arraila
EAE	15,3	16,7	14,1	2,6
Gipuzkoa	13,3	14,9	11,9	3,0

Elgoibar	12,9	14,6	11,3	3,3
Eibar	17,4	19,6	15,5	4,1
Soraluze	17,4	18,5	16,4	2,1

2019	GUZTIRA	Emakumeak	Gizonak	Genero arraila
<b>EAE</b>	10,8	12,6	9,1	3,5
<b>Gipuzkoa</b>	8,8	10,4	7,2	3,2
<b>Elgoibar</b>	9,1	12,4	6,2	6,2
<b>Eibar</b>	12,4	14,9	10,1	4,8
<b>Soraluze</b>	13,1	15,2	11,3	3,9

Iturria: LANBIDE-k eskainitako datuetatik aurrera berezko lantzea.


2016ko datuekin alderatuz gero, azken 4 urteetan langabezia-indizeak behera egin duela ikus daiteke. 2016an, Elgoibarren langabezia indizea %12,9koa zen, eta gaur egun indize hori %9,1ekoa da. Egia da egoerak hobera egin duela apurka-apurka emakumeen eta gizonen artean, baina alde numerikoak ez dira berdinak bi sexuetan, eta sexuen arteko aldea 3,3tik 6,2ra igo da. Hala ere, erreferentziako bi udalerrri hautatuekin konparatuta, Elgoibarko datuak egoera pixka bat hobea islatzen du.

Bestalde, LANBIDEk eskainitako datuen arabera, 2019ko abuztu eta irailean zehar 443 lan-kontratu gauzatu dira Elgoibarren. Hauetatik %44,5a emakumeentzako izan dira, eta gainontzekoak gizonezkoentzat, hau da, kontratatutako hiru pertsonatik bat emakumea da.

Adinari dagokionez, eta hurrengo grafikoari erreparatuz, kontratu gehienak 25-34 urte arteko pertsonen egin zaizkie (2016an tarte hau 30-44 urtekoen artean kokatzen zen).

Gainera, azpimarratzekoa da 25-44 urte arteko gizonak direla gehien kontratatzen diren pertsonak.

**3. GRAFIKOA: KONTRATAZIO KOPURUA ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA (2019ko abuztua-iraila)**




Iturria: LANBIDE-k eskainitako datuetatik aurrera berezko lantzea.

Prestakuntza-mailari dagokionez, "Derrigorrezko" ikasketa-maila duten pertsonei egin zaizkie lan-kontratu gehien, eta, ondoren, oso hurbil daude batxilergoko etapako pertsonak (2016ko egoera bera).

Grafiko honetan ikus daitekeenez, maila guztietan, Batxilergoko irakaskuntzetan izan ezik, gizonen kontratazioa emakumeena baino dezente handiagoa da.

**4. GRAFIKOA: KONTRATATUTAKO PERTSONAK IKASKETA-MAILA ETA SEXUAREN ARABERA (2019ko abuztua-iraila)**



Iturria: LANBIDE-k eskainitako datuetatik aurrera berezko lantzea.

Lan-merkatuan sartzea batzuentzat eta besteentzat berdina ez dela ikusi ondoren, beharrezkoa da kontratuen modalitatea deskribatzea.

Kontratu ohikoenak aldi baterako izan dira; horietatik 247 gizonei dagozkie, eta 224 emakumeei.

Modalitate honetan hain kontratazio kopuru handia egoteak honakoak pentsarazten ditu: iraupen laburreko kontratuak direla, ez dutela lan-egonkortasunik eskaintzen eta emakumeen enpleguaren behin-behinekotasuna eta ezegonkortasuna iraunarazten dutela.

Bestalde, kontratuen gehiengoa lanaldi partzialean gauzatzen da. Hauetako 218 gizonei dagozkie eta 101 emakumeei.

#### 4.Taula: EMAKUME ETA GIZONEN KONTRATU KOPURUA ETA MOTA (2019ko abuztua-iraila)

mota	Emakumeak	Gizonak
Mugagabeak	21	40
Aldi baterako	224	247
Lanaldi osoa	144	69
Lanaldi partziala	101	218

Iturria: LANBIDE-k eskainitako datuetatik aurrera berezko lantzea.

Jaso den hurrengo adierazlea jarduera-indizea da, bilakaera baloratu ahal izateko, 2018an argitaratutako azkena eta 2010eko udal-errolaren eta 2001eko biztanleria-errolaren arabera kalkulaturako tasak bildu dira.

### 5.Taula: JARDUERA-INDIZEA

	2018		2010		2001	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
<b>ELGOIBAR</b>	42,83	51,09	40,70	53,96	31,57	57,76
<b>EIBAR</b>	43,46	50,55	39,33	52,50	35,02	55,87
<b>SORALUZE</b>	43,56	51,90	40,60	53,13	32,89	58,44
<b>GIPUZKOA</b>	45,35	51,25	42,62	53,46	38,52	57,77
<b>EAE</b>	45,38	51,45	42,23	53,52	37,40	56,74

Iturria: OPENDATA-k eskainitako datuetatik aurrera berezko lantzea.

Taulan ikusten da emakumeen jarduera-tasa txikiagoaren joerari eusten zaiola. Hala ere, arraila murriztuz doa.

Ondoren, okupazio-indizea aurkezten da. Argitaratutako azken datuak 2001ekoak dira, eta testuinguru ekonomiko eta soziala aldatu direla kontutan hartuta, datuak ezin dira gaur egunera estrapolatu. Era informatiboan besterik ez dira azaltzen.

### 6.Taula: 16 URTE BAINO NAGUSIAGOA DEN POPULAZIOAREN OKUPAZIO-INDIZEA

	2018		2011		2001	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
<b>ELGOIBAR</b>	45,09	56,98	41,69	54,81	32,36	63,01
<b>EIBAR</b>	43,11	53,74	39,11	51,68	34,40	59,53
<b>SORALUZE</b>	42,02	54,52	38,46	51,14	31,27	62,12
<b>GIPUZKOA</b>	47,29	56,02	44,11	54,72	38,24	62,09
<b>EAE</b>	45,89	54,64	42,92	53,56	35,83	59,66

Iturria: OPENDATA-k eskainitako datuetatik aurrera berezko lantzea.

2001ean, Elgoibarko emakumeen okupazio indizea %32,36koa zen, eta gizonena %63,01ekoa. Bi sexuen artean ia %31ko arraila zegoen. 2018an (azken kalkulu ofiziala), ehuneko 12 puntu



jaitsi zen, eta%11,89an kokatu. Datu hori bat dator antzekoa gertatzen den erreferentziako gainerako udalerrien egoerarekin.

Euskadin, gizonen tasa 54,64 zen 2018an, eta emakumeena 45,89. Emakumeen tasa Elgoibarkoa baino handiagoa da, eta horrek Erkidegoko batez bestekoaren azpitik jartzen du udalerria. Gipuzkoan, emakumezkoen tasa 47,29koa da, eta gizonezkoena 56,02koa. Elgoibarren gizonen okupazioa Gipuzkoan bezla EAE-koa baino altua bada ere emakumeen kasuan Gipuzkoan baino bajuagoa da.

Jarduera ekonomikoari dagokionez, kontuan hartu behar da Elgoibarrek 60ko hamarkadatik aurrera garapen handia izanzuela, makina-erremintaren osagarri diren lantegi eta industria osagarri garrantzitsuak ezarri zirelako (elgoibarko industriaren produktu nagusia), eta horrek haren garapen urbanistikoa eta hazkunde demografikoa azkartu zituen. Gainera, azken urteetan instalatutako biztanleriaren zati handi batek garatzen duen zerbitzuen sektorea ere badu.

Datuak sexuaren arabera bereizita ez badaude ere, jarduera-sektoreen arabera ikusten da zerbitzu-sektorean okupazio-ehuneko handia dagoela (% 56,72). EAErekin, lurralde historikoarekin eta gainerako udalerriekin alderatuz gero, ikusten da Elgoibarrek antzeko okupazio-ehunekoa duela gainerako udalerriekin alderatuta, eta horrek zerbitzuen sektorearen garapen handia erakusten du.

**7.Taula: 16 URTE EDO GEHIAGOKO BIZTANLERIA OKUPATUA, SEKTOREEN ARABERA (%) . 2018**

	NEKAZARITZA	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
<b>ELGOIBAR</b>	1,55	38,09	3,64	56,72
<b>EIBAR</b>	0,46	31,60	3,84	64,10
<b>SORALUZE</b>	0,37	39,71	4,96	54,96
<b>GIPUZKOA</b>	0,93	22,95	5,31	70,81
<b>EAE</b>	1,06	19,25	5,56	74,13

Iturria: OPENDATA-k eskainitako datuetatik aurrera berezko lantzea.

Hurrengo taulan sektore bakoitzeko establezimenduen ehunekoa agertzen da, eta zerbitzuen sektorea nabarmentzen da berriz ere, eta nekazaritza eta abeltzaintzaren sektoreak presentzia oso txikia duela ikusten da. Hala eta guztiz ere, garrantzitsua da sektore horretan emakumeen presentzia sustatzea, sektore horretako ordezkari gehienak gizonak baitira. Zehazki, EAEn, sektore horretan lan egiten duten pertsona guztien%21,51 inguru dira emakumeak (2018ko urteko batez besteko datuak – EUSTAT).

**8.Taula: SEKTORE BAKOITZEKO ESTABLEZIMENDUEN EHUNEKOA GUZTIZKOAREN GAINEAN 2018AN(%)**

	NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA ARRANTZA	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
<b>ELGOIBAR</b>	5,69	19,22	10,24	64,85
<b>EIBAR</b>	1,05	8,74	8,43	81,78
<b>SORALUZE</b>	3,65	17,35	11,42	67,58
<b>GIPUZKOA</b>	3,26	7,73	12,10	76,91
<b>EAE</b>	3,43	6,63	11,74	78,20

Iturria: OPENDATA-k eskainitako datuetatik aurrera berezko lantzea.

Populazioaren errenta pertsonal osoari buruzko datuen arabera, emakumeek errenta txikiagoak dituzte aztertutako leku guztietan. Elgoibarren%45eko soldata-arraila dago, hau da, Gipuzkoan, eskualdean eta Eibarren baino handiagoa.

**9.Taula ERRENTA PERTSONAL GUZTIRA€ (2017)**

	Emakumeak	Gizonak	Arraila
EAE	16.074	26.519	%39
Gipuzkoa	16.972	27.554	%38
Eskualdea	16.029	28.449	%44
Elgoibar	16.201	29.609	%45
Eibar	16.113	28.643	%44
Soraluze	13.688	25.913	%47

Iturria: OPENDATA-k eskainitako datuetatik aurrera berezko lantzea.

Elgoibarren diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE) jasotzen duten pertsonen datuak erreferentziatzat hartuta, emakumeen egoera ekonomiko okerrera egiazta daiteke, onuradunen %53a baitira.

Nazionalitatearen arabera, emakume gehienak Espainiako Estatukoak eta Hego Amerikakoak dira. Magreb, Saharaz hegoaldeko Afrika eta Asiaren kasuan, batez ere gizonak dira onuradun.

Adinari dagokionez, emakume gehienak 65 urtetik gorakoak dira eta oinarrizko ikasketak dituzte.

#### 10.Taula Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE)ELGOIBAR 2019ko URRIA (kopurua)

		Guztira	Gizonak	Emakumeak
Nazionalitatea	Aberri gabea	<5	-	<5
	Europar Batasuna	<5	<5	<5
	Magreb	47	34	13
	Saharaz hegoaldeko Afrika	12	8	<5
	Asia	8	5	<5
	Hego Amerika	39	9	30
	Espainiar Estatua	103	43	60
	20-24	<5	<5	<5
	25-29	16	9	7
	30-34	21	9	12
Adina	35-39	25	11	14
	40-44	35	19	16
	45-49	28	15	13
	50-54	21	11	10
	55-59	16	8	8
	60-64	15	10	5
	65 eta gehiago	36	8	28
	Nahitaezkoak	146	76	70
	Batxilergoa	19	8	11
	Lanbide heziketa	20	10	10
Prestakuntza maila	Unibertsitatekoak	<5	<5	6
	Ez dago jasota	25	5	20
	Laneko errenta osagarria	69	40	29
Modalitatea	Oinarrizko errenta	147	62	85
	Ezkongabea	106	57	49
Egoera zibila	Ezkondua edo antzekoa	46	33	13

Sexua	Banandua edo antzekoa	55	12	43
	Alarguna	9	-	9
		216	102	114

Iturria: LANBIDE-k eskainitako datuetatik aurrera berezko lantzea.

### Egoera maila politikoan

Udalbatza 17 kidek osatzen dute: alkatea, emakumea eta 16 zinegotzik (6 emakume eta 10 gizon) 2019-2023 legegintzaldian udal-ordezkaritza duten hautagaitzetan. Emakumeen presentzia %41ekoa da Euskadiko Berdintasun Legeak markatzen duen gutxiengoa emanaz. Sexuaren arabera batzordeen osaerari dagokionez, nahiko orekatuta daudela ondorioztatu daiteke. Lurralde batzordea dago maskulinizatuen.

#### 11.Taula: Informazio batzordeak sexuaren arabera

INFORMAZIO BATZORDEA	Burua	Emakumeak	Gizonak
Antolakuntza	Emakumea	4 (%44)	5 (%56)
Lurraldea	Gizona	4( %33)	8 (%67)
Herritartasuna	Emakumea	6 (%50)	6 (%50)

Iturria: Elgoibarko Udala

### Langileak

Udal langileEN %60a emakumeak dira. Datu hau handitu da 2006tik. 2 emakume udaltzain gehiago daude hala ere oraindik maskulinizatuta dagoen arloa da, lan taldearekin batera. Ongizatea, idazkaritza eta artezkaritza berriz feminizaturik jarraitzen dute. Deigarria da ere hirigintza oso feminizatuta dagoela.

#### 12.Taula: Udal langileak sexuz 2019

	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
<b>IDAZKARITZA</b>	4	0	<b>4</b>
<b>BARNE ANTOLAKUNTZA</b>	2	0	<b>2</b>
<b>GAZTERIA</b>	1	0	<b>1</b>
<b>GARAPEN ECONOMIKOA</b>	1	0	<b>1</b>
<b>ONGIZATE</b>	7	0	<b>7</b>
<b>HIRIGINTZA</b>	6	1	<b>7</b>
<b>LANTALDEA</b>	1	10	<b>11</b>
<b>UDALTZAINGOA</b>	7	14	<b>21</b>
<b>ARTEKARITZA</b>	6	2	<b>8</b>

<b>ARRETA ZERBITZUA</b>	3	0	3
<b>POLIKIROLDEGIA</b>	2	1	3
<b>KULTURA</b>	2	0	2
<b>EUSKARA</b>	1	0	1
<b>LIBURUTEGIA</b>	2	1	3
<b>BERDINTASUNA</b>	0	1	1
	45 (%60)	30 (%40)	75

Iturria: Elgoibarko Udala

## 4. III Planaren ebaluaketa

Atal honetan ekintzen betetze maila ezagutzera emango da, lorpen nagusiak eta hobetzeko aspektuak ere.

### Ebaluaketa kuantitatiboa

#### Emitza orokorrak

Atal honetan ZEHAZKI landutako ekintzak ezagutuko dira eta baita ere jakin hasiera batetan planifikatu ziren erkintzetatik desbideratzerik egon den.

Elgoibarko Emakume eta Gizonenizonen Berdintasunerako III Planak (2015-2019) 4 zeharlerro, 20 helburu eta 36 ekintza izan ditu.

<b>ZE HAR LERROA</b>	<b>HELBURUAK</b>	<b>EKINTZAK</b>
<b>EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA</b>	<b>5</b>	<b>18</b>
<b>BALIOEN ALDAKETA EMAKUMEEN JABEKUNTZA</b>	<b>8</b>	<b>10</b>
<b>GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERANTZUNKIDEA</b>	<b>3</b>	<b>3</b>
<b>EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA</b>	<b>4</b>	<b>5</b>
	<b>20</b>	<b>36</b>

Hurrengo taulan islatzen den moduan ekintza lerro guztiak burutzeko ekintza eta medioak jarri dira. Kasu batzuetan partzialki izan bada ere. Beraz, betetze maila handia izan de la ondorioztatu daiteke.

ARDATZAK	EGINDA(E)			PARTZIALKI (P)			GUZTIRA	Betetzemila % (E)
	ZB	%B	%H	ZB	%B	%H		
GOBERNANTZA	11	47	61	7	54	39	18	61
BALIOEN ALDAKETA EMAKUMEEN JABEKUNTZA	5	22	50	5	38	50	10	50
GIZARTE- ANTOLAKUNTZA ERANTZUNKIDEA	2	9	67	1	8	33	3	67
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA	5	22	100	0	0	0	5	100
GUZTIRA	23	100	64	13	100	36	36	64

Aurreko taulan erreparatuz Portzentai handiena emakumeen kontrako indarkeriaren ardatzak izan du, % 100 betetze mailarekin. Ondoren, Gizarte Antolakuntza Erantzunkidea %67-arekin eta Gobernantza %61-arekin.

### Emaitzak ardatzen arabera

#### 1 ardatza: Emakume eta gizonen berdintasunerako gobernantza

#### Lorpen nagusiak

#### Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko egiturak sustatu dira.

- 2018 berdintasun teknikaria kontratatu da eta RPTn txertatuko dute lanpostua.
- Udaleko aurrekontuetan berdintasunari partida ekonomiko bat egokitu zaio eta handitzen joan da urtero.

2013	39.300 €
2014	43.800 €
2015	42.000 €
2016	48.500 €

<b>2017</b>	<b>95.304,00€</b>
<b>2018</b>	<b>100.804,00€</b>
<b>2019</b>	<b>92.200,00€</b>
<b>2020</b>	<b>103.200,00€</b>

- Emakumeen kontseiluarekin 8-10 bilera egin dira urtean.
- Hizkuntzaren erabilera ez sexista. Nahiko barneratuta dago sail guztietan. Prozedura liburuan txertatu da. Komunikazioa egiterakoan, hizkuntza ezezik, irudiak ere zaintzen dira.
- Herritarren atarian inprimaki gehienetan txertatuta dago sexu aldagaia.

### Formakuntza

gaia	orduak	Parte-hartzea
<b>oinarrizko formakuntza berdintasunean (2017)</b>	20	hirigintza, brigada eta udaltzainei (28 pertsona)
<b>oinarrizko formakuntza berdintasunean politikariei zuzenduta (2017)</b>	6	Politikariak ( 12 pertsona)
<b>Sexualitatea aisialdian (2019)</b>	15	haurren aisialdian lan egiten duten udal zerbitzuetan eta orokorroean herri mailan dauden elkarteetako kideak(20 hezitzaile)

### Parekidetasuna

- Kulturaren antolatzen diren ekintzetan saiatzen dira oreka hau egotea. Emakumeen presentziaz arduratzen dira ekitaldi guztietan.
- Euskara arloan:lan-taldeetan ere zaintzen dute oreka, baina gehienetan emakume gehiago biltzen dira euskara kontuak aztertzeko lan-taldeetan.
- Enplegu eta sustapenean, Gazteria, Gizarte zerbitzu eta kirolean irizpide hau jarraitzen dute.
- Hirigintzan, Artekaritzan,... landu behar da.



### **Ekintza Positiboa**

Aldi baterako lanpostuak atera direnean ekintza positiboa aplikatu da, brigada lanetan adibidez.

### **Erakundeen arteko koordinaketa**

Berdinsarean (EUDEL) eta Gipuzkoako Berdintasun teknikarien sarean (Indarkeriaren erantzun publikoaren protokoloak lantzen,...) parte hartu da.

### **Berdintasun planaren ebaluazio jarraituaren sistematizazioa bultzatu da**

- Plan operatiboak egin dira urtero.
- Ekintzetarako jarraipenerako fitxa bete da.
- Urtero memoriak egin dira Pertsonen Batzordean eta Emakumeen Kontseiluan aurkeztu dira.

### **Herriko eragile ezberdinen parte-hartzea sustatu da Berdintasun Planaren egitasmoak burutzeko**

- herriko jaiak antolatzeko jai batzorde bat eratu da eta bertan emakumeen parte hartzea handiagoa izan da gizonezkoena baino (12 lagun, 8 emakume eta 4 gizonezko).
- Ikastolako guraso Elkarteak sartu da Emakumeen Kontsilura.

### **Jai programazioaren azterketa egin da genero ikuspegitik.**

### **Pendiente geratu diren ekintzak**

- “Berdintasun arloaren komunikazio plana egitea”: Udaleko komunikazio sisteman txertatzen da informazio (kultur agendan, presntsa oharrak, email eta whatsapp, kartelak...). Ez da ikusi aproposa plan berezia sortzea.
- Gizon taldea eratzea.
- Kontratuetan genero ikuspegiaren txertaketarako lanketa sakonagoa egin behar da.
- “Aurrekontuen genero inpaktua aztertu sail edo programaren baten”. Hurrengo Planerako utzi da.
- Berdintasun teknikariaren lan postua RPTn txertatzea.

- Berdintasunean egindakoaren “deskargua” egitea urtero politikariak informatzeko eta udal barneko koordinazioa talde ezberdinetan.

## 2. ardatza: emakumeen jabeakuntza eta balioen aldatzea

### Lorpen nagusiak

#### Emakumeen jabeakuntza sustatu da emakumeen aniztasuna kontuan izanik.

- AUTOESTIMU FEMINISTA ETA JABEKUNTZA TAILERRA antolatu dira
- Urtero Jabeakuntzan hausnartzeko 10 tailer garatu dira, hilean behin.
- Urtero emakumei zuzendutako Coaching eta emakumeen lidergoa sustatzeko tailer bi / hiru tailer antolatu dira
- IRAKURKETA FEMINISTA TAILERRAK eman dira
- ZORU PELBIKOA LANTZEKO IKASTAROAK egin dira
- TOPAKETAK antolatu dira: KULTURARTEKO TOPAKETA EMAKUME MIGRATUEKIN
- HITZALDIAK ere esatarko “Belo islamikoa eskolan. Hausnarketak eta irizpideak aniztasunaren aurrean” Amelia Barquínek
- EMAKUME ETORKINEN JABEKUNTZA ETA LIDERGO KOMUNITARIOA: Elkarre baten sorrera bultzatu da LOREAK ELKARTEA. Udalak diruz lagun du du proiektua sustatzeko eta babesteko laguntza teknikorako zerbitzua ere. 2016an LOREAK ELKARTEA sortu da 6 emakumerekin (5 marokoar eta senegaldar 1).
- 2018an Jabetze eskolako eskaintzak bateratasun bat izan dezan, irizpide orokor batzuk zehaztu beharra ikusi zen. Horrela, urtea bi sei hilabetetan banatzen da eta bi izen emate epe irekitzen dira tailer ezberdinetan izena eman ahal izateko. Ikastaroak ez dute iraupen luzea izaten.

#### Hezkidetzaren programarekin jarraitu da

- 2016ti 2007ra AUTODEFENTSA landu da neskek eta MASKULINITATE BERRIAK mutilekin, 4 orduko tailerrak Ikastolako eta Institutuko 4. DBHn eta Batxilergoko 1. Mailan. Batzbestek, 231 ikaslek parte hartu dute urtero (122 neska eta 109 mutil)
- BELDUR BARIK Kanpaina bultzatu da ere. 408 ikaslek parte hartu dute batzbestek urtero: 193 neska eta 215 mutil. Institutua eta Ikastola. DBH 1,2 eta 3 mailatan.

- 2018tik aurrera, Izendun Dirulaguntzaren bitartez kudeatu dira hezkidetza proiektuak, eta gainontzeko udal sailekin batera bideratu dira: Ikastola, Institutua, Herri Eskola, Meka eta IMHra bideratutako proiektuak.

### **Emakume kirolarien saria ematea.**

2018ko urte bukaeran lanketa handia egin zen gai honen inguruan eta kirol saileko arduradunarekin bildu ostean, emakume kirolarien saria eman beharrean, gaur egungo kirol klubuen sari banaketan emakumeen presentzia areagotzeko neurriak hartzea zela egokiena baloratu zen.

### **Lan orientazio ez sexista programarekin jarraitzea.**

Lanbide Heziketaren astean: genero ikuspegia txertatzen da proiektuan eta industriako lan maskulinatuetan dauden emakumeak ikustarazten dira enpresatan egiten dituzten bisitetan.

### **Sentsibilizazio-kanpainak antolatzen jarraitu da egun berezietan**

Martxoak 8a eta azaroak 25ari, maiatzak 17a eta ekainak 28 gehitu zaie.

### **Emakumeei zuzendutako txoko polibalentea sortzeko pausuak eman dira**

Kokalekua aukeratu da. Herri erdigunean dago eta hainbat gela ditu, txoko polibalenteak egin egin ahal izateko. Obra batzuk egin behar dira bertan, irisgarritasun arazoak dituzten pertsonentzat egokiagoa izan dadin. 2019-2023 legealdian guztiz eratua izatea espero da.

### **Laneratzerako arazo handiak dituzten emakumeen ibilbideak lantzeko programa martxan jartzea.**

2016ean Sartu-Zabaltzenekin “Auxiliar de comercio” ikastaroa antolatu da, 120 ordu, 12 emakumek hartu dute parte.

Berdintasun teknikariak Gizarteratze mahaian parte hartu izan du.

Gurutze Gorria, Sartu eta Caritasekin elkarlanean, bazteketa-arriskuan dauden emakumeak jabetzeko proiektua lantzen da, gehienak etorkinak dira.

### **Pendiente geratu diren ekintzak**

- Elgoibarren erabakiak hartzen diren espazioetan emakumeen parte-hartzea aztertzea eta ekintza plana zehartea.
- Hezkidetzan egindako lanaren inpaktua neurtzea.

## 5. **Ardatza : gizarte antolakuntza erantzunkidea**

### Lorpen nagusiak

Kontziliazio erantzunkidearean inguruko lanketa egin da esperientzia praktikoak ezagutu, azterketa bat egin da herri mailan eta itun bat sinatu da udal eragile ezberdinen artean, non hurrengo alorrak zehaztu diren etorkizunerako:

- Genero estereotipo tradizionalak apurtzeko erreferente berriak ikusarazi.
- Zaintzaren balorazioa indartu.
- Erantzunkidetasunaren aldeko komunikazio indartu tokiko medioetan.
- Erantzunkidetasuna txikitatik sustatu.
- Etxeko lanetan (iturgintza, sukaldaritza, lisaketa...) prestatu gizonak zein emakumeak.
- Gizarte antolakuntza erantzunkidearenesperientziak ezagutu eta zabaldu.
- Menpekoen (otik 120 urtera) zaintza bermatuudaleko ekintza eta prozesu parte-hartzaileetan.
- Kontziliazio erantzunkidearen gidak zabaldu.
- Zaintzarako bolondresen sarea bultzatu.
- Espazio maitagarriak sustatu herriko eraikinetan.
- Kontziliazio eta erantzunkidetasunaren errealitatea ezagutu.

### **Urbanizazio proiektuetan genero ikuspegia txertatzea**

Formakuntza berezia jaso zuten baina elkarlana eta jarraipen handiagoa egon beharko litzateke.

## **6. Ardatza : emakumeen kontrako indarkeria**

### **Lorpen nagusiak**

#### **Indarkeria matxistaren aurkako prebentzioa landu da**


- Estatu mailako matxismoaren biktimen zantzeko bistaratzeko duen markagailua bat jarri da herrian.
- Jailetako programazioan, eraso sexisten aurrean udalaren konpromisoa azpimarratu da eta prebentzio ekintza ugari antolatu dira. Prebentzio gunea eta dinamizazio guneak eskaini dira. Hainbat produktu banatu dira herritarren artean, txapak, telazko pultserak... Eraso sexisten aurrean nola jokatu jakiteko protokoloa landu da baita, emakumeen kontseiluan. Herriko 15 tabernek interesa erakutsi dute material guzti hau beraien lokaletan eskaintzeko.
- Gazteei zuzendutako programak antolatzen dira urtero ikastetxeetan.
- Azaroak 25ean herritarrei zuzendutako ekimen ugari egin dira urtero.

#### **Emakume biktimenganako babes eta arreta osoa bermatzeko lanketa burutu da**

- Gipuzkoako protokoloa 2018an atera zen eta protokolo hori jarratzen da Elgoibarren ere.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren zerbitzuei buruzko informazioa zabaldu da herritarrengan.

### **Ebaluaketa kualitatiboa**

Elgoibarko udalean berdintasun politiken funtsezko oinarriak sendotu dira.



### Emandako aurrera pausu konketuak:

#### Plangintza

---

Urtero Plan operatiboa egin da. Ebaluaketa jarraitua egiten da eta betetze maila neurtzen da. Hala ere egindakoaren neurketa sistematizatu bat egotea gomendagarria izango litzateke eta egindakoaren inpaktua neurtzea ere.

